

Xedapen Orokorrak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

3263

3/2010 LEGEA, ekainaren 24koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2010. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen legea aldatzen duena.

Eusko Legebiltzarrak ekainaren 24ko 3/2010 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko 2010. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen legea aldatzeko, onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei

ZIOEN ADIERAZPENA

2010eko lehen sei hilekoan kapital-merkatuen krisia sortu da Europar Batasunean, herrialde batzuek beren defizitak zuzentzeko eta beren zorra ordaintzeko duten ahalmenari buruzko zalantzak eraginik. Egoera honek eraginda, Europar Batasuna bere herrialde kideen aldeko defentsan atera da, batez ere euroaren defentsan. Ondorioz aipagarria izan da eurogunean zor publikoa ordaintzeko zailtasuna duten herrialdeei laguntzeko ekintza bateratuko mekanismo bat onartzea, eta neurri batzuk aktibatzea aurrekontua berrorekatzeko eta defizit publikoa murrizteko egutegiak aurreratzeko.

Maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuak defizit publikoa murrizteko ezohiko neurriak onartu zituen: Gobernuak hasieran aurreikusitako defizitaren murrizketa 2010ean eta 2011n bizkortzeko hartutako konpromisoa betetzeko behar ziren ezohiko neurriak ezarri zituen.

Krisi ekonomikoa hain izan da gogorra eta sakona, non herrialde industrializatu guztiak ahalegin fiskal nabarmena egitera behartu baititu krisiaren ondorioak arintzeko eta lortutako garapen- eta ongizate-maileri eusteko. Nolanahi ere, finantza publikoen andeatzea larria izan da, eta, orain, ezinbestean konpondu behar da, suspertze ekonomikoa sendoa eta iraunkorra izango bada. Horri zor zaizkio Errege Lege Dekretu horretan jasotako neurriak, soldata-masa urtean ehuneko bost murriztea baitute helburu.

Murrizketa hori ezinbestean aplikatu behar da herri-administrazio guztietan. Oinarritzeko araudiaren aplikazioa ezinbestekoa da langile-gastuak arraziona-

Disposiciones Generales

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

3263

LEY 3/2010, de 24 de junio, de modificación de la Ley por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2010.

Se hace saber a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado Ley 3/2010, de 24 de junio, de modificación de la Ley por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2010.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

A lo largo del primer semestre de 2010 se ha producido en la Unión Europea una crisis en los mercados de capitales como respuesta a las dudas sobre la capacidad de determinados países para corregir los déficits y devolver su deuda. Esta situación ha provocado la reacción conjunta de la Unión Europea en defensa de sus países miembros y, sobre todo, del euro, que ha tenido como consecuencias más notables la aprobación de un mecanismo de actuación conjunta con el objeto de ayudar a los países de la zona euro con dificultades para pagar su deuda pública, así como la activación de una serie de medidas de carácter presupuestario al objeto de adelantar los calendarios de reequilibrio presupuestario y reducir el déficit público.

En este contexto, el Real Decreto Ley 8/2010, de 20 de mayo, adoptaba las medidas extraordinarias para la reducción del déficit público, y en concreto contemplaba las medidas extraordinarias que es necesario adoptar para dar cumplimiento al compromiso de acelerar, en 2010 y 2011, la reducción del déficit inicialmente prevista.

La dureza y profundidad de la crisis económica ha llevado a todos los países industrializados a realizar un esfuerzo significativo para paliar las consecuencias de la crisis y preservar los niveles alcanzados de desarrollo y bienestar. No obstante, las finanzas públicas han sufrido un grave deterioro que ahora debe ser corregido como requisito esencial para alcanzar una recuperación económica sólida y duradera. A ello responden las medidas incluidas en el citado Real Decreto Ley, cuyo objetivo se concreta en reducir un 5% la masa salarial, en términos anuales.

Dicha reducción es de obligada aplicación a todas las administraciones públicas. La aplicación de la normativa básica es trascendental para el logro de los

lizatzeko eta eraginkor bihurtzeko helburu erkideak lortuko badira eta gastu horiek murriztuko badira egungo egoera ekonomiko ezohikoak irauten duen artean. Hala bada, Errege Lege Dekretu horretan jasotako oinarritzko araudi honek helburu horiek lortzea izan behar du xede.

Euskal Autonomia Erkidegoan egoera hobea da beste batzuenaren aldean, baina, hala eta guztiz ere, berak ere behar ditu neurriak, defizit publikoa murrizteko eta hazkunde ekonomikoarekin eta enplegua sortzearekin bateragarria izango den aurrekontu-egonkortasuna iristeko, eta funtsezko zerbitzu publikoei eutsi eta garatzeko. Xede hau beteko dela ziurtatzeko, ziurtatzen da kreditu soberakinak aurreikusitako zorpetzearen murrizketari aplikatuko zaizkiola, ez beste gastu batzuen finantzaketari.

8/2010 Errege Lege Dekretuak EAEn izango duen eraginak arauetan aldaketak egin beharra dakar, arau horien aplikazio eraginkorra bideratzeko. Neurri horietako batzuek EAEko sektore publikoa osatzen duten entitateen zerbitzuko funtzionarioen lantsariei eragingo diete; beharrezkoa da, gainera, arau honekin lotuta, Eusko Legebiltzarrak lege bat onartzea neurri horiek autonomia-erkidegoaren eremuari egokitzeko. Era berean, komeni da beste neurri batzuk ere ezartzea (pertsonal-gastuetarako diru-laguntzak murriztea, esaterako). Horiekin, lerrokatu egingo da autonomia-erkidegoaren aurrekontu-politika gainerako aginteguneen mailetakoein, Estatukoekin nahiz Europako Ekonomia Erkidegokoekin.

Legegintza-teknikaren ikuspuntutik, aurreproiektua indarrean den Aurrekontu Legearen aldaketa gisa ematen da, lege honen edukia, funtsean, aurrekontuei buruzkoa baita argi eta garbi, 2/2009 Legeak, era horretako arauetan ohi denez, sektore publikoaren zerbitzuko langileen lantsarietarako ematen dituen arauen aldaketa baita.

Legeak gastua murrizteko aurreikusten duen neurri nagusiak EAEko sektore publikoaren mendeko langileen lantsariei eragiten die, eta haien soldata-masa urteko kopurutan % 5 gutxitzea eragingo du. Neurriak Administrazio Orokorreko, organismo autonomoetako eta ente eta sozietate publikoei eragingo die progresiboki.

Era berean, EHUko langile irakasle eta ikertzaileentzako berariazko araua ere ezartzen da; haien lantsariak dagoeneko murriztu dira Estatuko araudiaren pean.

Beste alde batetik, ikastetxe itunduen modulu eta soldata-gastuak finantzatzeko diru-laguntzetan ere pareko gutxitzea gertatuko da; horiek ere sektore publikoko langileei aplikatu zaien antzeko heinean murriztuko dira.

objetivos comunes de racionalización y eficacia de los gastos de personal así como de su reducción mientras persistan las circunstancias económicas extraordinarias actuales, de manera que esta normativa básica, en los términos redactados por el citado Real Decreto Ley, debe estar orientada a la consecución de los mismos.

En el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco la situación, aun siendo comparativamente mejor, también precisa de medidas para reducir el déficit público y alcanzar una senda de estabilidad presupuestaria compatible con el crecimiento económico y la creación de empleo, así como con el mantenimiento y desarrollo de los servicios públicos fundamentales. Para asegurar el cumplimiento de esta finalidad, se garantiza que los créditos excedentarios se aplicarán a la reducción del endeudamiento previsto, y no a la financiación de otros gastos.

La incidencia en la CAE del Real Decreto Ley 8/2010 obliga a modificaciones normativas que posibiliten su aplicación efectiva. Algunas de estas medidas afectan a las retribuciones del personal funcionario al servicio de las entidades que componen el sector público de la CAE, siendo necesario que, en el marco de esta norma, el Parlamento Vasco dicte una ley que adapte dichas medidas al ámbito autonómico. Asimismo, se considera conveniente establecer otras medidas distintas (como la reducción de los importes de las subvenciones que financien gastos de personal) que, con similar intención, alinean la política presupuestaria autonómica con el resto de niveles institucionales, nacionales y comunitarios.

Desde el punto de vista de la técnica legislativa, el anteproyecto se configura como una modificación de la vigente Ley de Presupuestos, habida cuenta de la clara índole presupuestaria de su contenido, que básicamente es una modificación de los preceptos que la Ley 2/2009 dedica, como es habitual en las normas de su clase, a las retribuciones del personal al servicio del sector público.

La principal medida de reducción del gasto que contempla la presente Ley afecta a las retribuciones del personal dependiente del sector público de la CAE, que supondrá una disminución del 5% de la masa salarial en términos anuales. La medida afecta de forma progresiva a los trabajadores y trabajadoras de la Administración General, los organismos autónomos y los entes y sociedades públicas.

Asimismo, se establece una norma específica para el personal docente e investigador de la UPV/EHU, cuyas retribuciones ya se han visto reducidas por la normativa estatal que les afecta.

Por otro lado, una minoración análoga se producirá en las subvenciones destinadas a financiar gastos salariales y en los módulos de los conciertos educativos, que deberán reducirse en proporción análoga a la aplicada al personal del sector público.

Artikulu bakarra.— Euskal Autonomia Erkidegoko 2010. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen legea aldatzea.

Lehenengoa.— II. Tituluaren («Gastuen Egoera Orria») III. Kapituluko («Lansarien eta Hartzeko Pasiboen Arauak») 23. artikulua («Lansarien Gehikuntza») 5., 9., 14. eta 15. paragrafoak aldatzea.

1.— 5. paragrafoa aldatu egiten da, eta honela gertatzen da idatzita:

a) Aurreko paragrafoetan ezarritakoarekin bat etorritik, lan-erregimenaz besteko langileek jaso beharreko oinarritzko lansariak izango dira langile horien kidegoari edo eskalari dagokion taldeari dagozkionak; lansarien zenbatekoak, hamabi hilerokori dagozkiola, aipatzen diren aldietako bakoitzerako zehazten dira, hona hemen nola:

a.1.— 2010eko urtarrilaren 1etik 2010eko maiatzaren 31 arte.

Taldea/Azpitaldea <i>Grupo/Subgrupo</i>	Soldata <i>Sueldo</i>	Hirurtekoak <i>Trienios</i>
A1	13.935,60	535,80
A2	11.827,08	428,76
B	10.264,44	373,68
C1	8.816,52	322,08
C2	7.209,00	215,28
E	6.581,64	161,64

a.2.— 2010eko ekainaren 1etik 2010eko abenduaren 31 arte.

Taldea/Azpitaldea <i>Grupo/Subgrupo</i>	Soldata <i>Sueldo</i>	Hirurtekoak <i>Trienios</i>
A1	13.308,60	511,80
A2	11.507,76	417,24
B	10.059,24	366,24
C1	8.640,24	315,72
C2	7.191,00	214,80
E	6.581,64	161,64

Artículo único.— Modificación de la ley por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2010.

Primero.— Modificación del artículo 23, apartados 5, 9, 14 y 15, «Incremento de retribuciones», del Capítulo III, «Régimen de retribuciones y haberes pasivos», del Título II, «El Estado de Gastos».

1.— Se modifica el apartado 5, con la siguiente redacción:

a) De conformidad con lo establecido en los párrafos anteriores, las retribuciones básicas a percibir por el personal no sujeto a régimen laboral serán las que correspondan al grupo en que se halle clasificado el cuerpo o escala a la que pertenezca, de acuerdo con las siguientes cuantías referidas a doce mensualidades, que se devengarán por los valores que se determinan en cada uno de los periodos que se señalan:

a.1.— Desde el 1 de enero de 2010 y hasta el 31 de mayo de 2010.

a.2.— Desde el 1 de junio de 2010 y hasta el 31 de diciembre de 2010.

b) Aparteko pagak, ekainean eta abenduan, ondoren aipatzen diren kantitateen arabera:

b.1.— Jarduneko funtzionarioen 2010eko ekaineko aparteko pagan, ondorengo taula honetan aipatzen diren soldatak eta hirurtekoak sartuko dira, bai eta destino-osagarriari edo dagokion hileroko kontzeptu baliokideari dagozkion kantitateak.

Talde/Azpitaldea 7/2007 Legea <i>Grupo/Subgrupo Ley 7/2007</i>	Soldata/Sueldo <i>Eurotan/Euros</i>	Hirurtekoak/Trienios <i>Eurotan/Euros</i>
A1	1.161,30	44,65
A2	985,59	35,73
B	855,37	31,14
C1	734,71	26,84
C2	600,75	17,94
E	548,47	13,47

b.2.— Jarduneko zerbitzuko funtzionarioen 2010eko abenduko aparteko pagan, ondoren aipatzen diren kantitate hauek sartuko dira:

b.2.1.— Soldata eta hirurtekoetan, taula honetan jasotzen diren zenbatekoak:

Talde/Azpitaldea 7/2007 Legea <i>Grupo/Subgrupo Ley 7/2007</i>	Soldata/Sueldo <i>Eurotan/Euros</i>	Hirurtekoak/Trienios <i>Eurotan/Euros</i>
A1	623,62	23,98
A2	662,32	24,02
B	708,25	25,79
C1	608,34	22,23
C2	592,95	17,71
E	548,47	13,47

b.2.2.— Lansari-kontzeptu gehigarrien zenbatekoak, abenduko aparteko paga osatu behar dutenak, Gobernuak onartuko ditu, honako arau hauen arabera:

I.— Kantitate horiek zehazteko, urteko guztizko lansarien murrizketak lansari-maila bakoitzean urtean eta ehunekotan izango duen eragina progresiboa izan beharko da, lansari-maila apalenetik hasi eta lansari-maila gorenera arte, sektore publikoaren zerbitzuko

b) Las pagas extraordinarias, en los meses de junio y diciembre, con las cuantías que se determinan a continuación:

b.1.— La paga extraordinaria del mes de junio de 2010 de los funcionarios y las funcionarias en servicio activo incluirá las cuantías en concepto de sueldo y trienios que se recogen en el cuadro siguiente, en adición a las cuantías del complemento de destino o concepto equivalente mensual que corresponda.

b.2.— La paga extraordinaria del mes de diciembre de 2010 de los funcionarios y las funcionarias en servicio activo incluirá las cuantías que se determinan a continuación:

b.2.1.— En concepto de sueldo y trienios las cuantías que se recogen en el cuadro siguiente:

b.2.2.— Las cuantías de los conceptos retributivos adicionales que deban integrar la paga extraordinaria del mes de diciembre serán aprobadas por el Gobierno conforme a las siguientes reglas:

I.— Para su determinación, el efecto porcentual de la reducción de las retribuciones totales en términos anuales por cada nivel retributivo deberá tener carácter progresivo desde el nivel retributivo más bajo hasta el nivel retributivo más alto, en cada una de las

lan-erregimenaz besteko langileen kolektibo bakoitze-rako indarrean diren lansari-tauletako bakoitzean.

II.— Hori dela eta, lansari-kontzeptu gehigarri-en kopuruak izango dira ehuneko-gutxiagotze hori urteko kopurutan eragiteko behar direnak, hau da, 2010eko urtarilaren 1ean indarrean diren urteko ko-purutan adierazitako lansari gutzitzkoen eta 2010eko ekitaldian azkenik behin betiko izango direnen artean ehuneko gutxitze hori eragiteko behar direnak. Ehu-neko gutxitze hori, gainera, homogeneoa izango da hurrengo paragrafoan zehazten direnekin.

III.— Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko funtzionarioentzat erreserbatutako lan-postuen lansari osagarriak arautzen dituzten apirilaren 12ko 79/2005 Dekretua aplikatzekoa zaien Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere organismo autonomoetako funtzionarioen lansari-taulak urteko murrizketa hau izango du ehu-nekotan:

tablas retributivas vigentes para cada colectivo de personal al servicio del sector público no sujeto a régi-men laboral.

II.— Por ello las cuantías de los conceptos retri-butivos adicionales será la necesaria para producir la expresada minoración porcentual en términos anuales entre las retribuciones totales vigentes a 1 de enero de 2010 expresadas en computo anual y las que de-finitivamente han de proceder para el ejercicio 2010, minoración porcentual que se corresponderá, o en su caso será homogénea, con las que se determina en el apartado siguiente.

III.— La tabla retributiva de los funcionarios y las funcionarias de la Administración General de la Co-munidad Autónoma y sus organismos autónomos a quienes resulta de aplicación el Decreto 79/2005, de 12 de abril, por el que se regulan las retribuciones complementarias de los puestos de trabajo reservados a personal funcionario de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, tendrá la reducción anual en términos porcentuales que se de-termina en el cuadro siguiente:

Destino-osagarriaren maila <i>Nivel C/D</i>	Osagarri espezifikoa <i>Complemento específico</i>	Aplikazio-aldiko murrizketaren %a <i>% reducción en el periodo de aplicación</i>	Urteko murrizketa baliokidearen %a <i>% reducción equivalente anual</i>
30		2,86	5,00
29	0 A	2,86	5,00
28	I A	2,80	4,90
28	I B	2,70	4,72
27	II A	2,70	4,72
27	II B	2,60	4,55
27	II C	2,60	4,55
25	III A	2,60	4,55
25	III B	2,50	4,37
25	III C	2,50	4,37
23	IV A	2,50	4,37
23	IV B	2,3942	4,19
23	IV C	2,3942	4,19
20	V A	1,80	3,15
20	V B	1,80	3,15
20	V C	1,60	2,80
18	VI A	1,60	2,80
18	VI B	1,40	2,45

Destino-osagarriaren maila <i>Nivel C/D</i>	Osagarri espezifiko <i>Complemento específico</i>	Aplikazio-aldiko murrizketaren %a <i>% reducción en el periodo de aplicación</i>	Urteko murrizketa baliokidearen %a <i>% reducción equivalente anual</i>
18	VI C	1,20	2,10
16	VII A	1,20	2,10
16	VII B	1,00	1,75
16	VII C	0,80	1,40
13	VIII A	0,56	0,98
13	VIII B	0,56	0,98
11	11	0,56	0,98

2.– 9. paragrafoari beste paragrafo bat eranstean; honela geratzen da idatzita:

«2010eko ekainaren 1etik aurrera, paragrafo honean aipatzen diren langileen soldata-masak murrizketa bat izango du, lansari-kontzeptu guztietan gutxiagotze bat aplikatzearen ondorioz. Gutxiagotze hori % 5en baliokidea izango da urteko kopurutan, eta gutxiagotze hori hileko sortzapeneko kontzeptuetan eta, kasuan kasu, abenduko aparteko pagan islatuko da.

Jaurlaritzak gutxiagotze iragankor bat ere ezarri ahal izango du, 2010eko uztaila lehenetik hasita aplikatu beharrekoa, bai eta, kasuan kasu, gutxiagotze horren azken zehaztapena ere, baldin eta gutxiagotze horren aplikazioari buruz negoziatio kolektiboaren bidez itunik edo akordiorik lortuko ez balitz. Hitzar-men kolektiboaren arabera lansari-aula bakoitzean aplikatu beharreko gutxiagotzea zehazte aldera, artikulua honetako b.2.2.III paragrafoan urteko kopurutan zehaztutako gutxiagotzeak hartuko dira erreferentziatzat».

3.– 14. paragrafoari beste paragrafo bat eranstean; honela geratzen da idatzita:

«2010eko ekainaren 1etik aurrerako eraginarekin, aurreko paragrafoan zehaztutako hileko lansaria honako taula honetan adierazitakoa izango da; 2009ko ekitaldian sortutako zenbatekoei gutxiagotzea ehunekoan aplikatuz ateratzen den emaitza dira».

2.– Se añade un nuevo párrafo al apartado 9 con la siguiente redacción:

«Con efecto 1 de junio de 2010 la masa salarial del personal al que se refiere el presente apartado experimentará una reducción, consecuencia de la aplicación en el conjunto de los conceptos retributivos de una minoración equivalente al 5% en términos anuales, que se reflejará en los conceptos de devengo mensual y en la paga extraordinaria del mes de diciembre en su caso.

El Gobierno podrá fijar una minoración con carácter transitorio a aplicar a partir de la nómina de julio de 2010, así como en su caso la determinación final de dicha minoración, siempre que no se alcance pacto o acuerdo a través de la negociación colectiva sobre la aplicación de dicha minoración. A efectos de determinar la minoración a aplicar en cada una de las tablas retributivas según el convenio colectivo que resulte de aplicación se tomarán como referencia las minoraciones en términos anuales determinadas en el apartado b.2.2.III del presente artículo».

3.– Se añade un nuevo párrafo al apartado 14 con la siguiente redacción:

«Con efecto 1 de junio de 2010 la retribución mensual determinada en el párrafo anterior será la incluida en el siguiente cuadro, resultante de la minoración porcentual respecto de las cuantías devengadas en el ejercicio 2009 que se recoge en el mismo».

	Soldata (2010-06-01etik aurrera) <i>Sueldo (desde 01-06-2010)</i>	Guztizko lansaria 2010 <i>Retribución total 2010</i>	% 2009 – 2010
LEHENDAKARIA <i>LEHENDAKARI</i>	6.927,98	100.606,28	8
LEHENDAKARIORDEA <i>VICELEHENDAKARI</i>	6.505,48	94.470,83	8

	Soldata (2010-06-01etik aurrera) <i>Sueldo (desde 01-06-2010)</i>	Guztizko lansaria 2010 <i>Retribución total 2010</i>	% 2009 – 2010
SAILBURUA <i>CONSEJERO</i>	6.176,08	89.254,37	7
SAILBURUORDEA <i>VICECONSEJERO</i>	5.589,82	80.398,30	6
ZUZENDARIA <i>DIRECTOR</i>	4.766,84	68.241,13	5
COJUA-KO KIDEA <i>VOCAL COJUA</i>	4.766,59	68.237,46	5
LEHENDAKARI PENTSIODUNA <i>PENSIONISTA LEHENDAKARI</i>	3.463,98	50.303,07	8
LEHENDAKARIORE PENTSIODUNA <i>PENSIONISTA VICELEHENDAKARI</i>	3.252,74	47.235,48	8
SAILBURU PENTSIODUNA <i>PENSIONISTA CONSEJERO</i>	3.088,05	44.627,25	7
SAILBURUORDE PENTSIODUNA <i>PENSIONISTA VICECONSEJERO</i>	2.794,91	40.199,15	6

4.– 15. paragrafoari beste paragrafo bat eransten zaio; honela geratzen da idatzita:

«2010eko ekainaren 1etik aurrerako eraginarekin, aurreko paragrafoan zehaztutako hileko lansaria progresiboki gutxituko da, artikuluko honetako 5.b.2.2.III idatz-zatian eta 14. paragrafoan urteko kopurutan zehaztutako gutxiagotzeak erreferentziatzat hartuta».

Bigarrenaren.– 23 bis) artikulua eransten da, honela idatzita:

«23 bis artikulua. Pentsio-planetarako ekarpenei buruzko neurriak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, bere organismo autonomoek, zuzenbide pribatuko ente publikoek eta sozietate pribatuek % 50 murriztu ahal izango dituzte beren eremuko langileentzat 2010eko ekainaren 1etik aurrera pentsio-planetara, enplegu-planetara edo erretiroa babesten duten aseguru-kontratu kolektiboetara egin beharreko ekarpenak, bai eta lehendik egiten ari direnak ere».

Hirugarrenaren.– II. Tituluaren («Gastuen Egoera Orria») III. Kapituluko («Lansarien eta Hartzeko Pasiboen Arauak») 26. artikulua («Baltzu publikoetako eta zuzenbide pribatuko ente publikoetako zuzendaritza-taldeetako kideak») aldatzea.

Beste paragrafo bat, bosgarrenaren, eransten da. Hona hemen:

«5.– 2010eko ekainaren 1etik aurrerako eraginarekin, artikuluko honetan aipatzen diren langileen soldata-masan murrizketa egingo da, lansari-kontzeptu

4.– Se añade un nuevo párrafo al apartado 15 en los siguientes términos:

«Con efecto 1 de junio de 2010 la retribución mensual determinada en el párrafo anterior será minorada de forma progresiva tomando como referencia las minoraciones en términos anuales determinadas en el apartado 5.b.2.2.III y las determinadas en el apartado 14».

Segundo.– Se añade el artículo 23 bis) con la siguiente redacción:

«Artículo 23 bis. Medidas relativas a las aportaciones a planes de pensiones.

La Administración General de la Comunidad Autónoma, sus organismos autónomos, los entes públicos de derecho privado y las sociedades públicas reducirán en un 50% las aportaciones que a partir de 1 de junio de 2010 debieran realizarse a planes de pensiones, de empleo o contratos de seguros colectivos que incluyan la cobertura de la contingencia de jubilación, para el personal incluido en sus ámbitos, y que vinieran realizándose».

Tercero.– Modificación del artículo 26, «Personal directivo de las sociedades públicas y entes públicos de derecho privado», del Capítulo III, «Régimen de retribuciones y haberes pasivos», del Título II, «El Estado de Gastos».

Se añade un nuevo apartado 5 en los términos siguientes:

«5.– Con efecto 1 de junio de 2010, las retribuciones del personal a que se refiere el presente artículo experimentarán una reducción consecuencia de la

guztien urteko kopuruetan aurreko artikuluetan funtzionarioentzat, lan-kontratuko langileentzat, goi-kargudunentzat eta behin-behineko langileentzat aurreikusitakoaren parekoa».

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.— Langileen lansarien murrizketa aplikatzea.

2/2009 Legearen 23. artikuluan eta hurrengoetan jasotako aurreikuspenek, 2010eko ekainaren 1etik aurrerako eraginarekin lansarien murrizketa arautzen dutenak, osoki aplikatuko zaizkie sektore publikoaren zerbitzuko langileei, beren lansariak araudi espezifikoak haztuturik dituztenei.

Gobernuak aldatu egin dezake Ertzaintzako langileen destino-osagarriaren urteko zenbatekoa, 2/2009 Legearen 24. artikulua jasotzen duena, lege honetako neurriak betetzeko behar den eran.

Lege honetan xedatutako lansari-gutxitzea kolektibo batzuei eta besteei aplikatzeko orduan, urteko kopuru osoak hartuko dira kontuan, aintzinasuna izan ezik; lege honetako 23. artikuluko 5.b.2.2.III paragrafoan jasotako taulako lansari-mailekin bat datoz kopuru horiek.

Bigarrena.— Sektore publikoko entitateak.

Lege honetan xedatutakoaren aplikazioaren ondorioz Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten entitateen gastuetan izango den gutxitzearen eragina Administrazio Orokorraren gastuen aurrekontuan jasanaraziko da, eta dagozkion kredituak soberakin gisa geratuko dira, dagokion zenbatekoaren arabera.

Aurreko paragrafo horretan aipatzen den jasana-razpena egiaz gauzatzeko beharrezkoa denean, aldatu egingo dira, edo, osterantzean, aplikaezintzat joko dira baliabide propioetat jotako entitateetako kudeaketa-gomendioak, programa-kontratuak, finantzaketa-esparru egonkorak eta, oro har, autonomia-erkidegoko sektore publikoko gainerako entitateen finantzaketa (Administrazioaren pentzuzkoa) arautzen duen tresna juridiko oro, den finantzaketa hori kontraprestazio bidezkoa edo ez.

Hirugarrena.— Zorpetzea.

Lege honen aplikaziotik eratorritako gastuaren murrizketak honako hau eragingo du: Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zorpetzearen muga, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 2/2009 Legearen 14.1 artikulua aipatzen duena, ez erabiltzea.

Laugarrena.— Diru-laguntzak.

Euskadiko Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateek 2010ean emandako laguntzen eta

aplicación en el conjunto de los conceptos retributivos de una minoración equivalente a la prevista para el personal funcionario y laboral, altos cargos y personal eventual, recogida en los artículos anteriores».

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.— Aplicación efectiva de la reducción de retribuciones al personal.

Las previsiones contenidas en los artículos 23 y siguientes de la Ley 2/2009, que regulan la minoración de retribuciones con efectos 1 de junio de 2010, serán de plena aplicación al personal al servicio del sector público cuyas retribuciones vengán determinadas por normativa de carácter específico.

El Gobierno podrá modificar la cuantía anual del complemento de destino del personal de la Ertzaintza contenido en el artículo 24 de la Ley 2/2009 en la forma necesaria para dar cumplimiento a las medidas articuladas en la presente Ley.

En la aplicación efectiva en los distintos colectivos de la minoración retributiva dispuesta en la presente Ley se tomarán como referencia las cuantías íntegras anuales, excluida antigüedad, que se corresponden con los niveles retributivos contenidos en la tabla incluida en el apartado 5.b.2.2.III del artículo 23 al que se refiere esta Ley.

Segunda.— Entidades del sector público.

La minoración en el gasto de las entidades que componen el sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi producida por la aplicación de lo dispuesto en la presente Ley se repercutirá en el presupuesto de gastos de la Administración General, quedando excedentarios sus créditos en la cuantía correspondiente.

Cuando sea necesario para hacer efectiva la repercusión a la que se refiere el apartado anterior, se modificarán o, en caso contrario, se entenderán inaplicables las encomiendas de gestión a entidades que ostenten la condición de medio propio, contratos programa, marcos estables de financiación y, en general, cualquier instrumento jurídico que regule la financiación por la Administración de las demás entidades del sector público de la Comunidad Autónoma, se produzca con contraprestación o sin ella.

Tercera.— Endeudamiento.

La disminución en el gasto derivada de la aplicación de la presente Ley supondrá la no utilización, en la cuantía equivalente, del límite del endeudamiento de la Administración de la Comunidad Autónoma al que se refiere el artículo 14.1 de la Ley 2/2009, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Cuarta.— Subvenciones.

El importe de las ayudas y subvenciones concedidas por las entidades del sector público de la Co-

diru-laguntzen zenbatekoa, soldata-kostuak ere barnean sartzen badira, doitu egingo da, sektore publikoko kategoria baliokideko langileen lansarietan egindakoaren pareko gutxitzea aplikatzeko. Lege hau indarrean dagoela onartu behar diren laguntza eta dirulaguntzak ezartzeko arauei dagokienez, arestian esandako hori jasoko duen klausula bat erantsi beharko da.

Bosgarrena.— Akordioak aldi batez ahalgabetzea.

2010eko ekainaren 1etik aurrerako eraginarekin, aldi batez ahalgabetzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, bere organismo autonomoek, zuzenbide pribatuko ente publikoek eta sozietate publikoek sindikatuarekin sinatutako akordio guztiak, lege honetan lansariei buruz ezarritako neurriak behar bezala aplikatzeko behar den eran.

Seigarrena.— Eusko Legebiltzarra, Herri Kontuen Euskal Epaitegia eta aurrekontu orokorretan sekzio independentea duten beste entitate batzuk.

1.— Aurrekontuen eta kontrol ekonomikoaren arloetan eskumena duen sailak, Eusko Legebiltzarrak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak jakinaraziko dizkion atxikipenak egingo ditu dagozkion aurrekontu-partidetan, hain zuzen ere, batak eta besteak zeinek bere kideen eta zerbitzuko langileen lansariak murrizteko hartutako erabakien ondorioz egin beharrekoak.

2.— Era berean, sail horrek, aurrekontu orokorretan sekzio independentea duten entitateei dagozkien aurrekontu-partidetan, entitate horiei atxikitako langileen lansarietako murrizketak eta lege honen eraginpeko gainerako langileen parekatzeko behar diren atxikipenak egingo ditu.

Zazpigarrena.— Itundutako ikastetxeak sostengatzeko modulu ekonomikoa.

Itundutako ikastetxeak sostengatzeko moduluak osatzen dituzten urteko kopuruak, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen Legearen 28. artikuluan eta IV. eranskinean zehaztuta datozenak, murriztu egingo dira, langileen gastuei dagokien osagaian, lege hau indarrean sartu ondoren. Ikastetxe publikoetako funtzionarioen lansarietarako aurreikusitakoaren pareko proportzioan murriztuko dira.

Zortzigarrena.— Euskal Herriko Unibertsitateko langileak.

1.— Lege-arau honetan ezarritakoa Euskal Herriko Unibertsitateko zerbitzueta eta administrazioetako langileei ere aplikatuko zaie, termino berberetan.

2.— Ez zaie aplikatuko irakasleei eta ikertzaileei, diren funtzionarioak edo lan-erregimenekoak, osagarri autonomikoetako % 5eko gutxitzea.

munidad Autónoma de Euskadi en el ejercicio 2010 que incluyan los costes salariales entre los conceptos utilizados para determinar su cuantía se ajustará para aplicarle una disminución en las retribuciones análoga a la establecida para el personal del sector público de categoría equivalente. En el caso de las normas reguladoras de ayudas y subvenciones que deban aprobarse bajo la vigencia de la presente Ley, se incluirá una cláusula que recoja lo establecido anteriormente.

Quinta.— Suspensión de acuerdos.

Con efecto 1 de junio de 2010 se suspenden parcialmente todos los acuerdos firmados entre la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, sus organismos autónomos, los entes públicos de derecho privado y las sociedades públicas con las organizaciones sindicales en los términos necesarios para la correcta aplicación de las medidas de carácter retributivo recogidas en la presente Ley.

Sexta.— Parlamento Vasco, Tribunal Vasco de Cuentas Públicas y otras entidades con sección independiente en los Presupuestos Generales.

1.— El departamento competente en materia de presupuestos y control económico efectuará en las partidas presupuestarias correspondientes las retenciones que a este efecto le comuniquen el Parlamento Vasco y el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, derivadas de los acuerdos que éstos tomen para reducir las retribuciones de sus miembros y personal a su servicio.

2.— Así mismo el citado departamento efectuará, en las partidas presupuestarias correspondientes de las entidades con sección independiente en los Presupuestos Generales, las retenciones que a este efecto resulten necesarias para equiparar las rebajas salariales de su personal adscrito con las del resto del personal afectado por la presente Ley.

Séptima.— Módulo económico de sostenimiento de los centros educativos concertados.

Los importes anuales de los componentes de los módulos de sostenimiento de los centros educativos concertados establecidos en el artículo 28 y el anexo IV de la Ley por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi se reducirán, en lo que se refiere al componente de los gastos de personal y a partir de la vigencia de la presente Ley, en una proporción análoga a la prevista para las retribuciones del personal funcionario de los centros educativos públicos.

Octava.— Personal de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

1.— Lo dispuesto en la presente norma será de aplicación, en los mismos términos, al personal de administración y servicios de la UPV/EHU.

2.— No se aplicará al personal docente e investigador, funcionario y en régimen laboral, la reducción del 5% a los complementos autonómicos.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Organismo autonomoetan, zuzenbi-de pribatuko ente publikoetan eta sozietate pribatuetan bakoitzaren gobernu-organoak aplikatuko ditu lege honetan jasotako neurriak, betiere, Gobernuak eta funtzio publikoaren arloko eskumenak dituen sailak horri buruz ezartzen dituzten jarraibideak beteta.

Bigarrena.– Legea garatzea.

Aurrekontuen eta kontrol ekonomikoaren arloetan eskumena duen sailak lege hau betearazteko behar diren jarraibideak emango ditu; bereziki, soberakin kredituen zenbatekoa zehaztuko du, dagozkion atxikipenak eginez.

Funtzio publikoaren arloan eskumena duen sailak emango ditu lege honen artikulua bakarrik aplikatzeko behar diren jarraibideak.

Hirugarrena.– Indarrean jartzea.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko ekainaren 25a.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– En el ámbito de los organismos autónomos, entes públicos de derecho privado y sociedades públicas, corresponderá a los respectivos órganos de gobierno la aplicación de las medidas contempladas en la presente Ley, dentro de las directrices que al respecto dicte el Gobierno y el departamento competente en materia de función pública.

Segunda.– Desarrollo de la Ley.

El departamento competente en materia de presupuestos y control económico dictará las instrucciones necesarias para la ejecución de la presente Ley; en particular, determinará el importe de los créditos excedentarios, efectuando las correspondientes retenciones.

El departamento competente en materia de función pública dictará las instrucciones necesarias para aplicar el artículo único de la presente Ley.

Tercera.– Entrada en vigor.

Esta Ley entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Vitoria-Gasteiz, a 25 de junio de 2010.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.